

KASTIGU BAT.

Eun urte zituen aiton bat zegoan
 Miñez oeratua urte bat osoan.
 Talo, esne, pitar ta egoskarichoak
 Ziran aren jakiak egunerokoak.
 Aiñ izate pizkorra, Jaunak eman arren,
 Kandela baten gisa zijoan urtutzen:
 Bada urte guzian, salda garbirikan
 Bere seme gogorrek etzion beñ eman.
 Barbero jaunak oni:—Mari, adi zazu,
 —Batean esan zion—aitarik ez dezu:
 Nere ustean dago denbora guchiko;
 Illko dala nago gaur illunabarreko.—
 —Beraz, illtzera noa, zikiro bat sarri,
 —Eranzun zion Marik—barbero jaunari.
 Ogi ardoak ere, bear,—zion— *mar-mar*,
 Proguko jendeari emateko bigar.—
 Prestaerak egiñik, ustez illko zala,
 Tupian egin zuen salda bereala,
 Eta, eraman zion aitari oera,
 Esanaz:—ona ere ardoa gañera.—
 —¡Ai Mari, Mari!—zion, eranzun aitonak—
 Egunero banitu bizikai aiñ onak,
 Siñis nazak, egiaz, ez nitek oraindik,
 Jaungoikoari kontu emateko peillik.
 Ardo-salda oechek, oso piztu nautek:
 Nere barren tristea poztutzen asi dek;
 Konsolatu zaitetze, bada, echekoak;
 Jaunak emango dizkik, seme, ordekoak.
 —Izan liteke, baña, barberoak dio,
 On aldi orrekin ez gintezkela fio.

Ez giñan ere etorri mundura betiko,
 Baizikan, edade bat ezkeru iltzeko.
 —Oker zegoek, bada, barberoa ere,
 Sendatuko naizela baldin ezpadu uste:
 Bisigarri oekin, oraingo echuraz,
 Gaur zortziko nintekék jaikiko benturaz.
 —Ez bezela pensatu orrelakorikan;
 Eta gañera diot garbi bear esan:
Egiñak daukazkigu gastu denak, eta...
Ill egiñ bearako du, onezkero, aita..
 —Uakit aurretikan, aur gaizki azia!
 ¿Ori dek iregandik nuen merezia?
 ¿Aztu zaik Jainkoaren laugarren agintza?...
 ¡Barkabezaio, Jauna, egin duen utsa!—
 Sukaldera juan zan, oso lotsaturik,
 Eta, berealase, otzikarak jorik,
 Erori zan lurrera; oluaz jo zuan
 Suburni ertza eta, illa gelditu zan.
 ¡Etzuen asko uste seme gizaisoak,
 Bigaramon goizean, zikiro-ardoak,
 Ziradela izango bere progurako,
 Eta ez ia ill zan aitarenerako!
Gurasokiko ume begirun gabeak,
¡Ona emen itz pisu baten ondoreak!

OTAEGI-KO KLAUDIO.

